

'Bernardarentzat' ez zen euritakorik izan Donostian.

VILLAGRAN

## Txorizoa, taloa eta euria Santo Tomaseko ferietan

A.O. / DONOSTIA

Donostia, Bilbo eta Azpeitia dira, besteak beste, Santo Tomasak ospatzen dituzten herriak. Eguraldia iluna izan genuen atzo, eta ohizkoa baino jende gutxiago ibili zen kaleetatik. Txistorra ogiarekin edo talotartean, ordea, guztiak dastatu ahal izan genuen.

Santo Tomas eguna baserriarren eguna da, eta Eguberriak hurbil ditugula iragartzen digu gainera. Baserriarrek urte osoan zehar ereindakoa emaitzak plazaratzen dituzte egun berezi honetan, honela Donostiako Konstituzio Enparantza eta Bilboko Plaza Barria baserrietako produktuak apainduak egoten dira Santo Tomasetan.

Aurkeztutako produktuen artean sari banaketak ere egin ziren. Donostian sariak hauek jaso zituzten: Jose Salaberriaren omenezko saria Ignacio Amenabarrek; Fruten arloan lehena Ignacio Amenabarrentzat izan zen, bigarrena Miren Agirrezabalarentzat eta hirugarrena Maria Etzezarretarentzat. Barazkietan, lehena Maria Etzezarretarentzat izan

zen, Ignacio Amenabarrentzat bigarrena eta Miren Agirrezabalarentzat hirugarrena. Bestalde, aipamen bereziak jaso zituzten: Jose Ramon Amunarriz, Jose Antonio Arrieta, Juana Galarraga —fruten arloan—, Hilaria Larruskain eta Manuel Irizar —barazkien arloan—. Kapoien lehen saria Tomas Aramendik jaso zuen, oilasko hoberenen saria Xabier Goikoetxeak eta indioilarrena berriz, Lizeagak.

Bilbon, barazki hoberenen saria Adela Andikoetxea Ugartek eskuratu zuen; fruten saria Jose Etxebarria Urrutiak; landareena Norberto Cuartango Balenziagak; gaztarena Florencio Txurruga Ugartek; bizirik dauden abereen saria Juan Bautista Elordui Bilbaok, Txakoli txuriarena Pedro Maria Dañobeitiak; txakoli beltzaren saria Ignacio Dañobeitiak eskuratu zuen; 'ojo gallo' txakolinaren arloan Jose Antonio Torre izan zen garailea; 'brezo' estiarene lehena saria Jose Antonio Escuderorentzat izan zen eta 'multiflora' estiarena aldiz, Pedro I. Gallarretak eskuratu zuen. Azkenik, ogien arloan garailea Susana Robina Ugarte suertatu zen.

## «Parkea bizkor baino, hobe ados egitea» dio lehiaketa saridunak

Urkiolaren Aldeko Batzordekoei ez zieten aurkezpenean egoten utzi

**A**txarteko harrobiak berregokitzeko lehiaketan sariduna izan zen 'Atxarte, Urkiolako Atea' ideiarene sortzaileek eta instituzioetako ordezkariak edozein lan ekin aurretik adostasunaren premia azpimarratu zuten. Hala ere, Urkiolaren Aldeko Batzordekoak kalean egon behar izan zuten, aurkezpenean egoten ez zitelako utzi.

Z.ZAMAKOLA / BILBO

Bizkaiko Diputazioko Jauregian emaniko prentsaurrekoan, Eusko Jaurlaritzako eta Diputazioko ordezkariak, epaimahaiko partaideak eta saritutako ideiarene partaideak egon ziren.

Garai Foru diputatuak gogorazari zuten saridunek apirilaren 5era arteko epea daukatela proiektua aurkezteko, eta eskatu zuten ideiarene titulua errespetatuta 'Urkiolaren topagunea' azpitolua ezarri ahal izatea, «indar sozial eta ekonomiko guztiak proiektu hau onena edo sikeran, ez hain txarrena dela ados ipintzeko» premia azpimarratuta.

Ildo beretik, ideia saridunaren sortzaileak adostasunaren premia aldarrikatu zuten, eta baietsi zuten ez dutela «hainbesteko presa proiektua egitean, ematen diren urratsak sendoak izatean baino».

Hala ere, berba horiek ematen ziren artean, kalean, Foru Jauregiko



Maketa saritua erakutsi zuten atzo Diputazioan.

MARISOL RAMIREZ

atariaren aurrean, Urkiolaren Aldeko Batzordeko partaideak zain zuden, aurkezpenean parte egotea galarazi bait zieten.

«Nola emango dugu iritzirik —kexu ziren—, zein proiektu den ere ez badakigu? Baietza ala ezetza zeri eman ez badakigu?»

**URKIOLAKO MUSEOA HARROBIETAN** Pilar Barraketa Elgea, irabazlea izan den ideiarene partaideetako batek azaldu zuen beren asmoa Atxarte Urkiolako sarrera bihurtzea izan dela, eta harrobiei dagokienez erabat ez estaltzearena, honek gaur egun landu gabe dagoen harri atal handia lantzea ekarriko lukeelako

Hortaz, bitarteko eragina onartzen

dute, eta hain zuzen ere inguruko haitzen eta harrobiaren arteko kontrastea landu nahi izan dute, harrobiak dauden lekuan museo naturala eginda.

Eraso sozioekonomikoari dagokionez, egileek «koltxoi» antzerakoa proposatu zuten, gogoratuta euren proiektuen arabera harrobiak erabat berreskuratzeko tarte batean kudeatzen segituko dutela eta horrek eragin ekonomikoa motelduko duela erizita. Museoa dela eta, harrobietan eta inguruetan dauden bitartekoak aprobetxatuko dituzte, eta horretaz, harrobietako eraikuntzetan museo itxia joango da, Urkiolako Parkeko ekosistemari buruzko datuak ezezik, eskualde osoaren historia eta jazorak jasota.

## Euskal Herri osokoak insumisioaren alde atzo Baionan manifestatu ziren

L.E. / BAIONA

Baionako udaletxearen aurrera 800 lagun bildu ziren atzo arratsaldean insumisioaren alde, «gizarte militarra» salatzeako, insumisioaren alde eta mugarik gabeko borroka antimilitarista bat aldarrikatzeko. Intzidenterik gabe iragan zen manifestaldia Ipar eta Hego Euskal Herriko erakunde askok deitua zutena.


Hegoaldeko gazte asko etorriak ziren Patxa erakundearen deia jarraituz.

'Manifestazio Nazionala' izan nahi zuen ekitaldiak bere helburuak lortu ditu: jendea biltzea eta inguruan informazioa biltzea. Mugan arazoren bat edo beste izanik ere, ez dirudia famatuak diren 'filtro operaziorik' izan den. Bestalde, ohargarri zen Baionan, manifestaldi denbora guz-

tian ez dela poliziarik agertu. Ageri ziren guztiak Suprefetura eta Komisaldia babesten zuten. Hiri erditik horrela ordu batez, armadaren aurka eta insumisioaren aldeko esloganak oihukatuz manifestalariak ibili ziren. Taldeek prestatu oihaletan, egunaren gai nagusiak azalduak ziren: 'Gazte eta abertzale naizelako, armadatik ez' (IEGA), 'mugaz gaindi armadaren aurka' (Jarrai), 'Euskal Herriko insumisioak aska' (Patxa), 'Independentziaren bidean insumisioa' (Oldartzen) edo 'Muga guztien gainetik insumisioa' (Kakitzat).

«Gora Euskadi insumisioa» oihukatu zuen, manifestaldia bukatu ondoren, San Andreseko plazan azken hitzaldia eman zuenak. Aurreko hitzaldi zerrendan insumisioaren zergatiak eta «zapalkuntza guztiak» salatu ziren, aldiro Euskal Herriko borrokaren batasuna azpimarratuz eta presoen askatzea eskatuz.

Ekitaldiaren bukaeran, lau lagunek auresku bat dantzatu zuten «preso diren insumisioaren ohoretan». Dena bukatua zelarik, bandera frantziar eta espainiar bat erre ziren jendearen txaloen artean.



**JOXE MIGEL  
BARANDIARAN**

Jauna  
Labayru Ikastegiko  
Ohorezko Babeslea

-GOIAN BEGO-


Eskerrak zure irakatsiagatik.  
Jaunari gure otoitza zure alde.  
Bilbao, 1991. Abenduak 21

**LABAYRU IKASTEGIA**



**JOXEMIEL  
BARANDIARAN**

**AIERBE**



**IZAN ZIRELAKO GARA,  
IZAN GARELAKO  
IZANGO DIRA**

**ARGIA**